

## Politika orokorra 2010

Legebiltzarburu anderea, Lehendakaria, legebiltzarkideok, eta etorri zareten adiskide guztioi, arratsaldeon.

Legealdi honetako politika orokorreko lehenengo eztabaida dugu gaurkoa, eta badirudi legealdi amaierako eztabaidara etorri garela. Eta ez urte oparoa izan delako, kontrakoagatik baizik, gobernu agortu eta akitu baten aurrean aurkitzen garelako. Ezinean eta eskuin españolistak eskuak lotuta ari den, eta aurkezten den, gobernu ahularen irudia eman duzu, goizean, lehendakari jauna. Nekatua eta nekea transmititzen duena. Arrankatu ere egin ez, eta errekin agortu zaion gobernu da zurea. Eta horren adierazle izan da gaurko zure diskurtsoa: saltzeko kudeaketarik ez, eguneko notizia beste batzuk eraman eta, 16 hilabetetako kudeaketaren errepaso ekonomian dauden datu baikor bakanak azpimarratuz burua ateratzen sailatu zara. Egin duzun iragarpen garrantzitsu bakarra hurrengo, fiskalitatearena, hurrengo hauteskundeak pasa arte utzi duzu, danak ahoa irekita utzita. Eta larriena, herri honetako arazo larrienei aurrez aurre begiratzeko eta lidergoa hartzeko inolako asmorik ez duzula agertu.

Uko egin diozu politika ekonomikoa lideratzeari, elkarbizitzarako akordio berri bat erdiesteko saiakera lideratzeari eta, indarkeria gainditzeko bidean, euskal herritarren arteko gutxieneko akordioak lortzeko saiakera lideratzeari. Lorpen eta aurrerapen zehatzik ezean, urte guztian errepikatu dituzun irudiak ekarri dituzu gaurkoan ere: aldaketa, normaltasuna... hitz hutsak. .

1. **Aldaketa lasaiaren gobernu.** Hasiera beretik, gehiengoaren kontrakotasunarekin ekiten zeniotela bazenekiten, PPren eskutik egindako operazioa gizartearen gehiengoak eta boto-emaille sozialista askok ere batere gogoko ez zutela bazenekiten, eta zatarra zena estaltzeko saiakeran irudiekin jokoan sartu zineten. Zuen aldaketa lasaiaren gobernu da. Aldaketak zer esan nahi zuen ongi argitu gabe, baina ALDAKETA izan da

zuen ikurra. Eta titular horrekin nahi dituzu estali zuen ahultasuna, zuen loturak, besteekiko menpekotasunak, zuen hasi ezinak eta asmatu ezinak, lantaldea egiteko izan zenituzten eta izaten jarraitzen dituzuen arazoak...

2. Horrekin batera, **Guztiontzako gobernua** egin nahi zenuela esanez etorri zinen, nahiz eta gehiengoari bizkar emanez egin, abertzale guztioi bizkarra emanez egin.
3. Eta gaur ere kontu berdinari eutsiz etorri zara, zure gobernuarekin – lotsarik gabe esaten duzu gainera– Euskadi **normalagoa, askeagoa eta batuagoa dela esanez**. Baina gero hori arrazoitzeko aipatzen duzun ekintza zehatz bakarra Herrizaingo sailak gure herrietan egindako kale-garbitzaile lanak aipatzen dituzu. Horrek egin gaitu, antza, normalagoak eta askeagoak. Baina zuen normaltasun praktika oso bestelakoa izan da: zuen normaltasuna adierazpen askatasuna murriztea izan da, hasi kartel eta argazkietatik eta eskubideen aldeko manifestazio anitzak debekatzeraino. Zuen normaltasuna aniztasuna zapaltzea izan da, iritzi politiko jakin batzuk erakundeetatik ez ezik, komunikabideetatik ezabatuz; zuen normaltasuna PPren eskutik politika frentistak eta herritar gehienek iritzi eta sentimenduaren aurkako politikak egitea izan da; Zuen normaltasuna gainontzeko guztiok zuek bezala bizi eta sentiarazten saiatzea izan da.
4. Eta okerrekoa da, larria ez balitz barregarria litzateke, sinestera iritsi zaretela. Bai, sinistu egin duzue “oasi” batean bizi garela, gatazka eta liskarrik ez dagoen “oasi” baketsu eta idiliko batean, non nahikoa izan den zuek Ajuria Enea zapaltzea, herri honetan “**eztabaida identitarioak**” gainditzeko. Zertan oinarritzen zara eztabaida identitarioak desagertu egin direla esateko? Zuek uste duzue benetan gurea bezalako gatazka politikoa duen herri batean gobernu inkilino aldatzearekin herritar guztion sentimenduak baretu, aldatu egiten direla? Benetan sinesten duzue hori?

Jarrera horrekin ordea, lortu duzuen bakarra herritarrengandik are gehiago **urruntzea da**: Itsu egon behar duzue ez ikusteko normaltasunaren diskurtsoa egiten duzuen bakoitzean gero eta gehiago urruntzen zaretela herritarrengandik, gero eta arrotzago sentitzen zaituztetela, eta horrela konfirmatu da galdetu den bakoitzean. Baina, hala ere, tematiak izan zarete eta gaur ere horrela jarraitu duzu, herritarren gehiengoak esaten duenari entzungor. **Zuen normaltasuna, Lopez jauna, zuek bakarrik bizi duzue, herri honetatik gero eta urrutiago dagoen mundu propioan kokatuta zaudelako.**

## II. Politika ekonomikoa eta 16 hilabeteotako kudeaketa

### 1) Politika ekonomikoa

Errealitatearen azterketa objektiboak alde batera uzten hasita, bide bera jarraitu duzue ekonomiaren alorrean. "Krisitik ateratzen ari garela" gaur berriro errepikatu duzu, nahiz eta datu objektiboen irakurketak horrelakorik esateko adinako baikortasunik erakusten ez duten. 130.000 langabetu, aurreko abuztuan baino ia 9.000 langabe gehiago, eta azken hilabetean ere 3.000tik gora lagunek lana galdu duenean ezin da horrelako baieztapenik egin. Por zierto ez dituzu aipatu. Egiten duzun irakurketak zerikusi gehiago du gobernuaren beharrekin, gobernuak kudeaketa saltzeko duen premiekin, errealitatearen azterketa objektiboarekin baino.

- Rezesiotik-atzeralditik irten gara, ez krisitik. Ez gara ari populazio aktiboa hazten ari den tamainan enplegua sortzen. Diru-bilketan izandako igoerak Rover eta BEZaren igoeraren efektuek distorsionatutakoak dira eta ez dirudi bide berdinetik joango garenik. Sozietateen gaineko zergak izan duen jaitsiera nabarmenak agerian uzten du enpresen irabaziak ez direla ari igotzen. Gainera, Barne Produktu Gordinean izandako hazkunde txiki

horretan eragin zuzena izan du esportazioak eta OCDE berak esan du Euroguneko herrialdeek ez dutela uste zuten besteko hazkundera izango hurrengo hilabeteotan.

- Beraz, ezin da esan krisitik ateratzen ari garenik; atzeralditik atera gara, ez krisitik. Eta zuk zeuk duela hilabete batzuk esaten zenuen bezala, ezin da esan krisitik ateratzen ari garela lana sortzen hasten ez garen bitartean.

Baina gainera, izan dugun hazkunde txikian Gobernu honek ikustekorik izan duela sinestea asko esatea da. Hazkunde txiki bat izan da, bai, gobernuak politika ekonomiko argirik izan ez duen arren. Ez zarete gai izan norabide argi bat hartu eta mantentzeko.

**Saltoka aritu zarete:** joan zen ikasturteari ekin zenioten Euskadi 09 inbertsio plana bultzatuz –portzietan, neurri handi batean bete gabe dagoena– ekonomia suspertzeko politika antiziklikoak bultzada publikoa, inbertsio publikoak egin behar zirela argudiatuz eta horretarako zorpetuz. Eta aurrekontuetan 2.000 milioi euroan zorpetzeko baimena jaso zenuten (tartean, gastu arrunterako ere bai). Aldiz, ikasturtea murrizketak eginez amaitu zenuten, 100 milioi euroko murrizketa, sei hilabete lehenago 2.000 milioi euroko zorpetzea baimendu ondoren. Eta, noski, murrizketak betiko lekutik: langileen soldatak jaitziz, lanpostu publikoak murriztuz, lege sozialen garapena atzeratuz.

Horren harira, bi kontu: gaur da eguna, oraindik ere, zehaztu ez duzuen 2010eko aurrekontuetan II. eta IV. Kapituluetan egin nahi ziren murrizketak zeintzuk izango diren; sozietate publikoei zegozkienak batez ere, zenbaterainokoak diren eta nora bideratuko diren. Ekainean esaten zenuen murrizketa horiek ez zenituela oraindik zehaztuta, baina inbertsio publikoak egitera eta enplegua sortzera bideratuko zenituela. Gaur esan duzu “hurrengo jardunean, hurrengo aurrekontuetan %20 murriztuko dela. Eta aurten?

Maiatzaren 27an esan zenuen Nekazaritza, Arrantza eta Ingurumeneko enpresa publikoek %30eko murrizketa bat izango zutela eta Industriak %20.

Bestalde, ez dakigu ezer kontzertu ekonomikoaren batzorde mistoaren bileraz, han erabaki behar zen Zapaterok erkidegoei ezarritako murrizketatik zenbat egokituko litzaiokeen Euskadiri. Hori ere argitzeko dago.

Eta hori gutxi balitz, bada sakoneko kontraesan bat jardun horretan: alde batetik, Euskadi 09n 7.000 lanpostu sortzeko programa sustatu da (nahiz eta azkenean 5.500 lanpostu sortu diren), enplegu behin-behineko eta jarraipenik gabekoa. Aldiz, kalitatezko lanpostu publikoak murrizten ari zarete nabarmen, hezkuntza eta Osakidetzan bereziki, murrizketak beharrezkoak direla argudiatuz eta, noski, sindikatuekin sinatutakoaren kontra jokatur. Horrez gain, plantillen murrizketa eta azpikontratazioa aztergai dituzue, nahiz eta funtzio publikoko mahaian egonkortasunik ez duten 13.000 lanpostu egonkortzea eta azpikontratazio gehiago ez egitea adostu zenuten. Baina zuen jokabidea horixe da: orain A esan eta bihar Z baldin bada, berdin da. Zuen hitza behin eta berriz jan duzue lehenengo urte honetan, zuen hitzak baliorik ez duela agerian jarritz behin eta berriz. Zein fidagarritasun du bere hitza, bere konpromiso programatikoak eta bere hitzarmenak jaten dituen gobernu batek?

Egin beharko zenuketena da funtzio publikoko sindikatuekin bildu eta kalitatezko lan publikoa sustatzeko konpromisoa hartu, kalitatezko lan iraunkorra bermatuko dituen inbertsioak sustatu.

(Por zierto, elkarrizketa soziala oso gaintik aipatu duzu, hankamotz jao eta erdibidean ez, ezerezean geratu dena. Zertan da? Zertarako hainbeste hitz elkarrizketa sozialaren garrantziaren gainean, gero ezer ez egiteko edo eta gero sindikatuekin adostutakoa apurtzeko?)

Gainera, lehendakari jauna zuk aditzera eman nahi duzuna ezinezkoa da: gutxiagorekin gehiago egin daiteke, bai, baina ezin dena da bateragarri bezala

aurkezten saiatu ekonomiaren ikuspegi liberala eta ikuspegi soziala; hots, ezin da esan inbertsioa sustatu, enplegua sortzea eta politika soziala mantentzea duzula helburu eta, aldi berean, murrizketekin jarraitu nahi duzula. Ez da bateragarria eta, are gutxiago, zerga politika ukitu nahi ez denean.

Gainera, zorrari buruz esan duzun bakarra da hurrengo ekitaldian aurrezte positibora joko duzuela. Ez duzu esan 16 hilabeteen hirukoiztu egin duzuela ia 4.000 milioiko zorra dugula. Eta beraz, murrizketak baldin badatoz, aldatu egingo duzue zorraren aurreikuspena? Eta orduan nola egin aurre politika soziala bermatzeari, batez ere fiskalitatean hartu behar diren erabakiak atzeratu egiten badituzu? Ekuazio hori gaizki egina dago, lehendakari jauna.

(2010eko ekainean EAEko zor publikoa 3.925 milioian dago, 2009ko ekainean (1.368) baino 3 bider gehiago. Hau da, lehen BPGren 3,8 zena orain %6an dago. 2010erako Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak 2.000 milioiko zorpetzea aurreikusten zuen eta aurreikusita dago oraindik, falta diren hilabeteetan, ia beste 800 milioian zorpetzea. Urte bukaeran 4.527 milioiko zorra izan dezakegu, eta legealdi amaieran, zuek egiten duzuen aurreikuspenaren arabera, 8.000 milioira igo daiteke. Ez dakigu murrizketen ondorioz aurreikuspen berriak dituzuen. Dena den, zorpetzearen bide horrek mugak izan behar ditu, diru-bilketa ez da eta uste adina igotzen eta horrek ezinbestekoa egiten du zerga politika goitik behera berrikustea.)

Eta zergen gai horretan seriotasuna eskatzen dizugu, lehendakari jauna. Ez da onargarria gai horretan egin diguzun anuntzioa. Gaia behin eta berriz ahotan ibili, zergak ukitu beharra aipatu, baina ezer zehaztu ez eta gaur esaten diguzu hurrengo hauteskundeak pasa arte ez diozula eztabaidari ekingo? Ez dituzula neurri sendoak hartuko iruzur fiskalari aurre egiteko?. Gaur da eguna gizarteak ez dakiena zein den zure proposamen zehatza. Ez du balio eskumena diputazioena dela esanez, bigarren maila batean geratzea eta ardurak gaineratik kentzea: behin eta berriz ahotan ibili baduzu, esan egin behar diozu herri honi zein den zure proposamena eta hartu ekimena. Gertatzen dena da guzti honetan argi geratzen da

esaten ez duzuna baina errealitate dena "nahi dut baina ezin dut", eta konfirmatu egiten da eskuinak lotutako gobernuak eskuineko politikak egiten dituela.

Eta zer esan enplegurako politika aktiboez. Atzo PSOE eta EAJren artean adostu zutena 472 milioiko kopuruan, baina gaur da eguna oraindik ez dakiguna zure proposamena zein izan den negoziazio prozesu honetan. Zein izan da zure proposamen zehatza negoziazio horretan? Gurea argia da, gehiengo sindikalak eskatzen duena: enplegu politika osoak behar ditugula esaten jarraitzen dugu, gizarte segurantzaren kudeaketa ekonomikoa barne, eta lan hitzarmenetako euskal esparru propioa bermatuko duena, hots, estatutik datozen atzerapauso onartezinen aurrean ikusle soil izan beharrean, euskal langileok erabakitzeko gaitasuna izatea aldarrikatzen dugu. Hori ez den guztia, erdibidean geratzea da eta geratu da, nahiz eta aurrerapausoa izan denik ez dugun ukatuko. Zein zen zure ustez kompetentzia horren eskualdatzeko eredu egokia, eta kuantifikazio egokia, kutxa bakarra ez hausteko izan duzun obsesioaz harago? Gainera bi kontu honetaz, ez da egia gizarte segurantza defizitarioa dela, eta 2)eredu honekin pentsio sistema defizitarioa izango da leku guztietan, eta horregatik ezinbestekoa da pentsioen finantziario misto baten alde egitea, langabezia sariarekin egiten den bezala, gizarte segurantzatik aparte aurrekontuetatik finantzatuz.

Enplegu politikekin gertatutakoak bi gauza erakusten ditu: ez dela egia gobernu ez abertzaleen esku izanda eskumenak errazago etorriko zirela mantentzen zenuten tesia. Eta ez dituzuela euskal langileen interesak defenditu, ematen zizuetena hartzeko prest agertu baitzarete. Zertarako 9 diputatu Madrilen? Amen egiteko. Amen,

- Zuen sukurtsal izaera inoiz baino argiago: argi geratu 1) zuen mentalitatea gurearen aurkakoa dela; Madrilen ez zaudetela Euskal Herria defendatzeko, baizik eta Euskal Herrian zaudetela Espainiako interesak defendatzeko.

- Agerian geratu da 2) esaten duzuenaren aurka estatutua ez duzuela defendatzen, diozuen moduan;
- 3) Eta agerian geratu da ezinbesteko dela egungo harremanen eskema aldatzea, Madrilek emaniko autonomiatik harago gure erabaki ahalmena jasoko duen estatutu baterantz, eta bitariko batzorde bat beharrezkoa dela, gure eskubideak lortzeko gobernu zentralen ahuldade egoeren zain ez egoteko.

Eta egia esango dizut lehendakari jauna, politika ekonomikoan erakutsi duzuen nora eza eta lidergorik eza estaltzeko ekimen ekonomikoren bat espero genuen, baina ideia orokorretatik harago, jada onartua dagoen lehiakortasun plana aipatu eta oraindik ere berritzeko duzuen I+D+I plana aipatzeaz harago ez duzu ia ezer berririk esan. Zuk zeuk esan duzu hasieran gainera, "no esperen anuncios que generen ruido y división social, que siempre son seguidos después de frustración". Nola ez dugu ba esperoko iragarpenik? Eta bestalde, edozein ekimenek iritzi desberdinak sortzea normaltasun politikoaren barruan dago, ezta?

Tira, Kotxe elektrikoa eta energia berriztagarriak aipatu dituzu.. Ikusteko dago. Guk ez daukagu ezer auto elektrikoaren alde egindako apustuaren kontra; beti ere, apustu hori egungo energia ereduari alternatibak bilatzeko estrategiaz lagunduta badator. Hala ere, eta ikusita hasitako bidaia horretan dituzun lagunak, badirudi apustua auto partikularren kontsumoa sustatzea dela, eta ez alternatiba energetikoa bilatzea.

Hori dela eta, gobernuak egiteko daukan 2010-2020 euskal estrategia energetikoa behingoz Legebiltzarrera ekar dezala exijitzen dizugu, era horretan jakingo genukeelako energia berriztagarrietan oinarritutako ereduaren aldeko apustua benetakoa dela, I+D+In inbertituz energia mota horietan.

Ados gaude, dibertsifikazioa behar dugu eta erronka berriztagarrien aldeko apustua izan behar du. Baina apustu hori nola egiten duzuen ikusteko dago

Horrez gain, berretsi egin duzu betiko azpiegituren aldeko apustua: Abiadura Handiko Trena, metroa, tranbia, eta abar. Politikako ohitura zahar eta salagarriari jarraituz, inbertsioak norbera sendo den tokietara bideratuz. Esanguratsua da zure diskurtsoan gure eskualdeak lotzen dituen tren sarea aipatu ere ez izana.

Azpiegituren arrazionalizatzea aipatu duzu. Zuentzat azpiegiturak arrazionalizatzea da hiriburu bakoitzean portu bat eta aireportu bat izatea?

## 2. Babes sozialean murrizketak

Bestalde, 16 hilabete hauetan ez dela batere aurreratu babes sozialean, aitzitik atzera egin dela. Gobernu sozialista bat izan eta babes politiketan atzera egiten ari da, krisi egoeran egonda atzera egin da babes politiketan, eta aditzera eman zaigunagatik –aurrekontu zurruna– are gehiago atzera egiteko arriskua dugu.

**Alor sozialean** gehiago gastatu dela, bai, baina beharrak askoz ere gehiago hasi dira. Aurreikuspen falta egon da eta ikuspegi murrizta, LGLen kasuan argi geratu den bezala. 6,7 milioi gehiago jarri diren arren eskarien %75 bakarrik aseko da, 8.000 lagun inolako laguntzarik gabe utziz eta udal asko zailtasun handiekin utziz.

Hirugarren sektoreko entitateei subentzioak gutxitu egin zaizkie, %10-15 bitartean. Etorkinei zerbitzu juridikoa ematen zien zerbitzua, HELDU itxi egin duzue. Eta gainera, murrizketen berri ematera etorri zinenean argi utzi zenuen bezala, lege sozialen garapena atzeratzen ari da (zerbitzu sozialen legea, mapa eta kartera bereziki). Beste lege garrantzitsu batzuk atzeratzen ari dira: hain maitea zenuten udal legea, etxebizitza legea eta gazteria legea, besteak beste. Gogoratu egin behar da Etxebiden apuntatuak dauden 16.000 lagun, gazteak gehienak, gobernuaren zain daudela, oraindik ere ez dugulako ez Etxebizitza legerik ez eta plan zuzentzailerik.

**Osasun alorrean** ere, berritasunekin mozorrotuta bai, baina murrizketen bidetik jo duzue. Besteak beste, asteburuan osasun zentroak ixteko erabakia, berrantolaketa moduan saldu nahi izan duzuen, edo pediatriako zerbitzuak ospitaletan soilik eskainiz, hainbat herritarrentzako horrek suposatzen duenarekin. Asteburuetako arreta zerbitzuetan guztira 21 erizain gutxiago egongo dira, edo Etengabeko Arreta Guneko (PAC) langileek bere lan baldintzak txarrerako aldatuta ikusiko dituzte. Larria da ere pediatria zerbitzua 7 urte bitarteko umei mugatzeko asmoa eta, zer esanik ez, arreta pertsonala birtualengatik ordezkatzeko ezartzen ari zareten egitasmoa. Edo eta enpresa pribatuetara zuzentzen den diru publikoa, kontzertazioaren bidez 243 milioi euro 2010ean. Gainera, ikusten ari garenez, kontzertazioa, hainbat irregulartasunentzako aukera paregabea da.

Murrizketa sozialen bidea utzi eta gastu soziala handitzea izan beharko luke ezkerreko alderdi baten helburua. Murriztu lehenengo kapituluan eta 2 eta 4. Kapituluetan, baina ez gastu sozialean eta inbertsioetan. Ez da, ordea, hori, gaur dakarkiguzun plana, eskuinak lotutako gobernua delako zurea eta, bide horretan behintzat, gure oposizio osoa izango duzu.

### 3. Hezkuntza eta euskara

**Eta zer esan Hezkuntzan**, aurrera ihesean ari da zure gobernua, lehendakari jauna. Hezkuntza, zehazki esanda, bake-hezkuntza posizio politikoa markatzeko eta aldaketa irudikatzeko modu zabarrean ibili eta gero, gaur da eguna ez zaretena gai zehaztapenik emateko.

Bestalde, gu guztiok bezala zeuek ere badakizue gure hezkuntza-sistemako erduetako batek ez duela balio gizarte hau integratzeko. Ez duela balio herri honetako hizkuntza ofizial biak ikasteko. Nonbait, gurasoek erdua aukeratzeko

duten eskubidearen aurrean neutral mantentzea da zuen asmoa. Neutraltasun faltsu horren atzean gobernatzeak berarekin dakarren ardura hartzeari bizkarra eman diozue. Baina harago ere bazoazte: eredu berri bat jarri duzue abian, esperimentazio-aldian, ingelesa ere orain arte baino hobeto ikas dadin. Baina eredu berri horrentzat ez duzue kontuan hartu azkeneko hogeita hamar urteko esperientzia. Badakizue eredu batek ondoen balio duela erkidegoko hizkuntza ofizial biak ikasteko, eta beste eredu batek ez duela helburu horretarako balio. Badakizue, baina hala eta guztiz ere esperimentaziorako eredu guztiak berdin tratatu dituzue. Eta ez dira berdinak.

**Hizkuntz politikari** dagokionez, beste urtebete itxaron beharko dugu, ezta? “Ez dugu euskara abandonatu” esan duzu, abandonatzeko lehenengo eduki egin behar da, eta gaur zuk oso gutxi duzula agerian utzi duzu. Minutu bat hasieran eta ondoren 15 segunduko korteak. Hori bai bertsoak eta guzti.

Duela hil batzuk hizkuntz politikarako sailburuordea aldatu egin zenuten... batek daki zergatik. Harekin batera joan zen zuzendari bat ere. Eta gaurko argazkia da denbora pasatzen uztearena, ekimenik ez hartzearena. Ikusi egin beharko da, etorkizunak zer dakarkigun. **Baina ez ahaztu euskalgintza eginez sustatzen dela, ez esperoan geratuaz.** Noizko kalitatezko telebista publikoa euskaraz? Zeren zain zaudete? Organigramako beste aldaketaren baten zain? Noizko **ETB** digitalean ikusi ahal izateko aukera Nafarroan?

Nafarroako gobernuarekin lankidetzeta hitzarmena sinatu zenuten esanez gobernu bien arteko kolaborazioaren garaia abian zela, normaltasunez, zer eta aldaketaren gobernuari eskerrak. Horretan ere kale, Lehendakari jauna.

### III. Bakea eta elkarbizitzarako akordio politiko berria

#### 1) Akordio politiko berria

Eta esperoan, itxaroten, pasa behar zaizu legealdia bakea eta elkarbizitzaren beharrei aurre egiterakoan ere. Itxoitea ez da egitea. Lidergoa zerbait baldin bada, egoerei aurrea hartzea da, etor daitezkeen egoera berrietarako prestatzea. Ez trena martxan aurrera nola doan ikusi eta gehien interesatzen zaizunean igotzea. Edo, okerrago dena, gauzak lehenean geratu daitezten ahalegin guztiak egitea, trena errailetik ateratzeko ahalegin guztiak egitea.

Gaurko zure hitzaldian hutsune nabarmena sumatu dugu. Ez duzu hitz egin herri honetan dugun arazo nagusienari konponbidea bilatzeari buruz: elkarbizitza baketsu eta adostu baterako gutxieneko akordioari buruz hitz erdi bat ere ez. Zuen programan jasoan egon arren, aurreko azaroan alderdi popularrak bidea erabat itxi zizunetik, ez duzu jada beharrezkoa ikusten. Ez dago kontsentsu nahikorik, diozu, gai horri heltzeko. Noski, horregatik egin behar da eztabaida. Eta argumentu horren ahultasunaz jabetuta edo, kontratu soziala aurkeztu zenuenetik (zertan geratu da hitz potolo hura?) argumentu berri batekin zabilta bueltaka: zuk gobernu hartu duzunetik ez dago eztabaida identitariorik.

Hori da zuk nahiko zenukeena, ez errealitatea. Eta horrek berak erakusten du zeinen urruti zaudeten errealitatetik.

Baina ez, lehendakari jauna. Eztabaida identitarioa ez da desagertu zu lehendakari zarelako. Zu lehendakari zarenetik isilarazten saiatu zara, bai. Baina zuk eztabaida ekiditeak, zure jarrera argi ez adierazteak, ez du esan nahi eztabaida hori konpondu denik, edo eztabaidarik ez dagoenik. Euskal Herrian ez daude pertsona adina nortasun nazional, urtarrilean ihesaldi batean esan zenuen bezala. Norbanakoaren nortasuna anitza da, zalantzarik gabe. Baina nortasun nazional bi

ditugu herri honen hegoaldean, bere gradazioekin, bai, batzuetan nahastuak ere bai, baina nortasun nazional desberdinen arteko eztabaida eta gatazka ez da desagertu.

Egin beharko zenukeena da gatazka ukatzeari utzi eta elkarbizitzarako akordio berria erdiesteko zuen ibilbide orria zein den agertu. Ez baldin bada kontsultaren bidea, zein da zuen bidea? Lehen Kataluniako ereduak izaten zenuten ahotan. Orain, Kataluniako estatutuarekin zer egin duzuen ikusita, hori ere ez. Izan ere, Kataluniako estatutuarekin zer gertatu den ikusita, argi dago arazoa ez dela bakarrik herrian bertan ados jartzea edo adostasun zabalak biltzea. Eta Katalunian gertatu denak zuei egiten dizue galdera bereziki, bide hori, hots, akordio zabalak lortzearena ezinbestekotzat jartzen zenutenei. Zer egin duzu zuk akordio zabal hori lortzeko? Zein da zuen ibilbide orria elkarbizitza normalizatua lortzeko? Erabakitze eskubidearen gaineko akordioa erdiesteko?

Badago zure jarreran lehendakari batengan onargarria ez den zerbait. Gaiari eustek nekea emango balizu bezala erantzuten duzu. "Zertarako?" –diozu– Ni horrela gustura nago-eta". Baina zuk ez dituzu zure antzera pentsatzen dutenak bakarrik ordezkatzeko, zuk herri hau ordezkatzeko betebeharra duzu eta, jakin badakizu, gehiengoak herri honen aitortza eta erabakitze eskubidea jasoko duen akordio berria nahi du.

Orain arteko zuen erantzuna UKAZIOA izan da. Elkarrizketarako eta akordioaren eskaintzari, gizartearen zati bat kanpoan utziz, eta frontismoarekin erantzun diguzue. Lehengo legealdian akordio zabalaren beharra aldarrikatuz, urte honetako erabaki garrantzitsuetan PPrekin bakarrik adostera pasatu zarete, abertzale guztiak alde batera utziz, gehiengoari entzungor eginez, eskuin espainolistari gizar-tean ez duen eta inoiz izan ez duen pisua emanez. Eta elkarrizketari uko eginez, herri honetan dagoen arazo nagusienetakoari konponbidea bilatzen saiatzeari uko egiten diozula esaten ari zara.

Baina ukazioaren aurrean, etsipenik ez. Herritarrei ere mezu argia helarazi nahi diet: bidea ez da eten. Ukazioaren gobernua dugu, bai, baina gehiengoak bakea eta erabakitze eskubidearen zutabeen gainean eraiki nahi dugu etorkizuna. Eta, argi izan dezagun: gehiengo demokratikoa geldituko duen estaturik, ez gobernurik, ez dago XXI. mendeko Europan. Horixe da erabakitze eskubidea defendatzen dugunon erronka: desberdinen arteko elkarlana egiteko gaitasuna izan behar dugu, gehiengo demokratikoak ematen digun arrazoi demokratikoari eusteko.

## 2. Bakea

Eta bakea, bai. Herri honetan dugun premia larriena, egarririk handiena. Belaunaldietako sufrimenduarekin amaitu, gure arteko desberdintasunak elkar joka baina elkarrizketaren bidez konpondu. Posible da eta posible egin behar dugu, norberak badaki zer egin behar duen horretarako, bestearen zain egon gabe. Gakoa, alde bakarreko erabakietan dago, aspaldidanik esan dugu hori. Norberak egin beharrekoa egitea. Gutxieneko eskubideak berrezartzea izan behar du lehen urratsa, giza eskubide, eskubide zibil eta politiko guztien berrezarpena.

- ETAk aldebakarreko su-eten behin betikoa, egiaztagarria eta ordain politikorik gabea eman behar du.
- Alderdi politiko eta eragile guztiok argi adierazi behar dugu indarkeria oren aurkako kontrakotasuna.
- Presoenganako mendeku politika amaitu behar da. Politika egiteagatik preso dauden guztiak kaleratu egin behar dira. Alderdien legea ezabatu; politika egitea eskatzen diegunei ezin zaie politika egitea oztopatu. Eta, noski, biktima guzti-guztiei, mailaketarik gabe, zor zaizkien errekonozimendua eta egia, justizia eta erreparaziorako eskubideak aitortu eta bermatu behar zaizkie.

Eta zuk zeuk ere zure papera jokatu beharra daukazu. Aurrez aipatutako akordio politikoaz gain, bakegintzan aurrera egiteko, herri bezala hartu beharreko erabakiak hartzeko prozesuaren lidergoa hartzea dagokizu. Bai lehendakari jauna, adostu egin behar dugu zer nola egin aurre indarkeriaren ondorio guztiei, amaiera ordenatu eta iraunkor bat izan dezan. ETA eta gobernuak negoziatzen dutenetik harago, guk ere itxi beharko ditugu gai sentsibleak direnei buruzko akordioak. Eta horri ekitea zuri dagokizu. Zuri, bai, lehendakaria zaren heinean. Lehendakari batek lidergoa hartu behar duelako; Lasai hartzea eta beste aldera begiratzea ez delako herriak espero eta nahi duen erantzuna.

ETAk ekintza armaturik ez egiteko erabakia "betikoa" dela esatea eta nahasmena eragin nahi digula esan eta beste ezer ez egitea, arduragabekeria izugarria da. Ez al gaude hobeto urrats hori eta gero? Ahaztu egin al zaizue mehatxu zuzenaren pean hasi zenutela ibilbidea ?

Badakigu nork duen ardura nagusia, baina horrek ez du kentzen gainontzekook ere dagokigun mailan ekimena hartzeko ardura dugula. Gizartearen gehiengoak eskatu, exijitu, egiten dizugu har dezazula dagokizun ardura eta perspektiba historikoarekin jokatu dezazula. Ez bakearen lehendakari gisa agertzeko, ez dominak jartzeko, zure alderdikideren batek esan duen bezala, baizik eta herri honek merezi duelako, zor zaiolako, bakean bizitzeko eskubidea dugulako.

---

Ukazioaren estrategiaren aurrean, etsipenik ez. Euskaldunon bakea guk egin behar dugu, ukazioen ginetik. Urratsak modu alde bakarrekoan eginez, ETARI argi exijituz indarkeria behin betirako utz dezan; guztiok argi hitz eginez ETAREN indarkeriaren aurka, indarkeria ororen aurka, eta biktima guztien errekonozimenduaren alde.

Euskaldunon bakea eraiki behar dugu, gure esku dagoelako bakea eraikitzeko urratsak egitea. Bakea amets eta bakerik ezagutu gabe gure artetik joan direnei zor diegulako. Baina batez ere, herri maitagarri honetan jaio eta bakean bizitzeko

eskubidea duten hurrengo belaunaldiei zor diegulako, heriotza eta kartzela ekidin behar dizkiegulako.

Euskaldunon bakea eraiki behar dugu, ukazioaren gainera aurrera eginez. ETak bakea euskal herriari zor diolako, ez Estatuari. Beraz, estatuak zer egingo duen zain egon gabe, modu aldebakarrekoan urratsak eman ditzan exijitu behar diogu, guztiok. Norbaitek esan dezake indarkeria eza ez dela bakea, baina bakeak ezinbestekoa du indarkeria desagertzea. Herri honetan ezkerrekoak eta abertzaleak garen guztiok argi hitz egiteko ordua da. Inoren zain egon gabe, besteek gure erabakia baldintzatzen utzi gabe: altxatu dezagun ahotsa. Bakea merezi dugulako, bakeak merezi duelako.

### Politika orokorra 2010

El de hoy es el primer debate de política general de esta legislatura, aunque parezca que sea el último debate de la misma. No porque haya sido un año fructífero, sino por todo lo contrario, porque nos encontramos ante un gobierno totalmente agotado y fatigado. Un gobierno débil y sin iniciativa, que muestra su incapacidad y está actuando —y así se presenta— atado de manos por la derecha españolista. Un gobierno cansado y que transmite cansancio. Señor lehendakari, el suyo es un gobierno al que se le ha agotado el combustible antes de arrancar, y prueba de ello ha sido el discurso que ha realizado hoy, sin gestión que vender, y viendo que la noticia del día se la han llevado otros, ha intentado sacar la cabeza subrayando los escasos datos positivos existentes en materia económica. Y sobre todo, ante la falta de logros y avances concretos, se ha vuelto a quedar en frases hechas y huecas. Y lo que es más grave aún: sin ninguna intención ni de hacer frente a los problemas más graves de este país ni de liderar la salida.

Ha renunciado a liderar la política económica, a liderar el intento de llegar a un nuevo acuerdo de convivencia y, en el momento de la superación de la violencia, ha renunciado a intentar siquiera liderar un acuerdo de mínimos entre los ciudadanos de esta comunidad autónoma. Ha venido a repetir la misma cantinela de este año pasado: cambio, normalidad, modernidad... simples palabras. A partir de ahí, prácticamente nada en lo que respecta a hacer frente a los verdaderos problemas de la ciudadanía.

1. **Gobierno del cambio tranquilo.** Desde el inicio, es consciente de que actuaba en contra del deseo de la mayoría ciudadana. Sabía que la operación conjunta con el Partido Popular no era deseada ni por la mayoría de la sociedad, ni por muchos de los votantes socialistas. Así que, en un

intento de taparlo, se pusisteis a jugar con imágenes. El suyo iba a ser el gobierno del cambio tranquilo. Sin explicar qué cambio concretamente, pero el cambio fue su bandera. Y con esa bandera ha intentado ocultar su debilidad, sus comienzos erráticos y malas decisiones, su dificultad para conformar y mantener un grupo estable de trabajo...

2. Junto con ello, explicó que quería ser el **gobierno de todos**, a pesar de hacerlo dando la espalda a la mayoría, a pesar de ser incapaz de entender a gran parte de la sociedad, a pesar de relegar los sentimientos y anhelos de la mayoría, a pesar de ver sólo el sufrimiento de algunos.
3. Y hoy ha venido con la misma cantinela, diciendo —con absoluta desvergüenza— que con su gobierno Euskadi es **más normal, más libre y más plural**. Pero luego, la única actuación concreta en la que apoya dicha afirmación es el trabajo de limpieza de calles de fotos y carteles hecho por el Departamento de Interior en nuestras calles. Al parecer eso nos ha hecho más normales y más libres. Pero su práctica de la normalidad ha sido muy diferente: su normalidad ha sido limitar la libertad de expresión, comenzando por la retirada de carteles y fotos y llegando a la prohibición de manifestaciones plurales. Su normalidad ha sido pisotear la pluralidad, haciendo desaparecer ciertas opciones políticas no sólo de las instituciones, sino también de los medios de comunicación. Su normalidad ha sido, de la mano del PP, llevar a cabo políticas frentistas, contrarias a las opiniones y sentimientos de la mayoría. Su normalidad consiste en intentar que el resto viva y sienta como ustedes.
